

VII. BAKE TOPAKETA 2021

Bilbao, 2021.eko otsailaren 1a

Pandemiak eragindako inguruabar bereziak kontuan hartuta, bake eta adiskidetzearen aurtengo topaketa –Bake Topaketa- deszentralizatuta egingo da Eleizbarruti osoan eta «urrutiko presentzia» erara, datorren **otsailaren 20an**, goizez eta jardunbide bi –taldean eta bakarka- garatuz.

Jardunbide telematikoa taldean:

- 10:00: Harrera, hasierako otoitz laburra eta topaketaren aurkezpena
- 10:15: Ikus-entzunezko proposamena: «Zentzuzko oroimena»
- 11:00: Azken otoitz laburra eta baterako jardunbidearen amaiera

Jardunbidea bakarka:

- 11.30-13.00 h.: Norbere eta lekuko oroimena helarazi eta beste batzuenakaz aurrez aurre jarri

EL PASADO QUE SEREMOS / ETORKIZUNEZKO IRAGANA, «Nire Zerbitzariak justizia ekarriko dau egiaz» (Is 42, 3), goiburuaren bidez topaketaren helburua nabarmendu gura da, hau da, kristau alkarteko helduengandik gazteengana oraintsu arte bizi izan dogun indarkeriazko historiaren inguruko oroimena helarazteko lanari ekin, erizpide ebanjeliko eta etikoetatik, helarazi daiten oroimen hori eleiz alkarreak adiskidetzearako bidean dan gizarteari egiten deusan ekarpen baliotsu izan daiten. Jakina, helburu hau lortu ahal izateko, ezinbestekoa da aparteko ahalegina –eleizbarrutian, lurraldean, herri bakotxean- gazteek bat egin daien eleiz topaketa honen aurtengo ekitaldiagaz. Honako honegaz batera bialtzen dogun kartelak guzti hori jaso eta agertzera emon gura dau.

Taldeko jardunbide telematikoa (bere sasoian, dagokiozan estekak iragarri eta eskainiko dira), On Joseba Segura Eleizbarrutiko Gotzain Administratzailearen agurragaz hasiko da eta, ondoren, saioaren inguruko azalpenak emon eta otoitzaldi laburra egingo da.

Ondoren, ikus-entzunezko materiala proiektatuko da: «Zentzuzko oroimena». Euskal kulturako pertsona entzutetsu batek autokritika erako oroimen-lekukotasuna emongo dau eta horren haritik gure ondorengoei helarazteadmerazi dauan indarkeriazko iraganaren kontaktan nabarmendu beharreko erizpide etiko eta ebanjelikoak azpimarratuko doguz.

Urrutiko jardunbide honi amaiera emoteko, otoitz egingo dogu alkarregaz.

Etenaldi laburraren ostean, **bakarkako jardunbide presentzialari** ekingo deusagu, talde bakotxa bere batzar-lekuan (parrokiako lokala, eleiza...) –alkarte jardunbidea egin dan lekuan-. Oraingoan, hiru unetan, norbere eta lekuko oroimena helaraziko dogu eta beste batzuenakaz aurrez aurre jarri:

- Saio orokorrean esan dana komentatu (batez be, partaide gazteen erantzunak eskainitako lekukotasunaren aurrean)
- Norbere edo lekuko oroimenak eskaini (helduen komunikazinoa gazteei: honako honegaz batera, prestaketarako eskema metodologikoa eskaintzen da)
- Ikus-entzunezkoan eskainitako erizpide etiko eta ebanjelikoak aurrez aurre jarri.

Partaidetza eta topaketaren garapen zuzena errazteko, eta baldintza berezietan ospatuko dala kontuan hartuta, honako **ohar** honeek kontuan hartu daizuezala eskatzen deusuegu:

- Topaketaren lehenengo zatia (taldeko jardunbide telematikoa) euskarri informatikoen bidez transmititzeak bakarkako partaidetza, bakotxak bere dispositibotik parte hartzea ahalbideratuko dau, dagozkion estekak argitaratuko diralako. Aukera honen barri emotea, beste batzuetan baino jente gehiagoren partaidetza lortzeko aukera da, ez dalako inora joan behar eta zapatu goizeko ordubete baino ez daualako eskatzen.
- Baina, barrero dinogu, lehentasunezkoa dala alkartean, parrokian edo Pastoral Barrutian deialdia egitea eta ezinbesteko baldintza guztiak betetzen dituan lokalean **heldu eta gazteak batzea**, taldean lehenengo zati telematikoa jarraitu daien eta, ostean, lekuan lekuko jardunbidea burutu daien, batuta dagozala aprobetxatuz.
- Taldea osatzeko asmorik izan ezkerro, bialdu, arren, mezua pazyreconciliacion@bizkeliza.org helbidera, horren barri emonez eta hartu-emonerako pertsonaren datuak erantsiz. Holan, alkarregaz prestatuko dogu guztia, saioa ahalik eta ondoen garatu ahal izateko.

Biharamunean, Garizuma aldiko lehenengo domekaz, aurreko urteetan erabagitakoaren arabera, **Bake eta Adiskidetzearen eguna** ospatuko dogu Eleizbarrutian. Liturgia lagungarriak eskainiko dira.

Dakigunez, aurton «**alkarte abegitsuak**» izenburuaren haritik, Eleizbarrutian dinamika bat garatuko da Garizuma aldian. Erraza da gure Bake Topaketa –liturgia aldi honi hasiera emoten deutsan eleizbarrutiko topaketa- xede horregaz lotzea, gure helburua, batez be, alkarteko pertsona heldu eta gazteak batzea da-eta eta, ondoren, gazteei, helduen oroimena jasoteaz batera, bake eta adiskidetzearen inguruko erantzukizuna euren gain hartu daiela eskatzea.

Karidade eta Zuzentasunerako Ordezkaritzatik, Garizuma aldiaren hasieran, zapatuko topaketa eta domekako ospakizuna gure sen solidario eta adiskidetzaillea sustatzeko baliagarri izatea gurako geune. **Dei egiten** deutsuegu parte hartu daizuen eta aldeztatik **eskerrak emoten** deutsueguz topaketa eta ospakizunaren prestaketa eta garapena ahalbideratuko dozuen guztioi.

Uon esanetara, agur bero bat.

Manu Moreno
Karidade eta Zuzentasunerako ordezkarria

VII BAKE TOPAKETA 2021

Bilbao, 1 de febrero de 2021

Dadas las peculiares circunstancias derivadas de la pandemia, el encuentro por la paz y la reconciliación de este año –Bake Topaketa- se celebrará de manera descentralizada en toda la Diócesis y en la modalidad de «presencialidad en remoto» el próximo **20 de febrero**, por la mañana y con doble dinámica, común y particular.

Dinámica común telemática:

10.00 h.: Acogida, breve oración inicial y presentación del encuentro

10.15 h.: Propuesta audiovisual: «Memoria con criterio»

11.00 h.: Breve oración final y despedida de la dinámica común

Dinámica particular presencial:

11.30-13.00 h.: Ejercicio de transmisión y contraste de memoria personal y local

El lema **-EL PASADO QUE SEREMOS / ETORKIZUNEZKO IRAGANA, «Mi Siervo manifestará la justicia con verdad» (Is 42,3)-** pretende destacar el objetivo del encuentro, que no es otro que el de iniciar un trabajo de transmisión de memoria de las generaciones adultas de la comunidad cristiana a las generaciones jóvenes respecto a nuestra historia violenta reciente, desde unos criterios evangélicos y éticos que hagan de esa memoria transmitida una aportación valiosa de la comunidad eclesial a la sociedad en camino a la reconciliación. Lógicamente, subyace a este objetivo, como condición de posibilidad del mismo, el empeño especial -tanto diocesano como territorial y local- por incorporar a gente joven a este encuentro eclesial en la edición de este año. La imagen-cartel que adjuntamos pretende sintetizar visualmente todo esto.

La **dinámica común telemática** (se anunciarán y ofrecerán oportunamente los enlaces correspondientes) comenzará con el saludo de nuestro Obispo Administrador Diocesano D. Joseba Segura, seguido de la explicación de la sesión y orando brevemente.

A continuación, contaremos con la proyección de un material audiovisual que, con el título «Una memoria con criterio», ofrecerá el testimonio de memoria autocrítica de una persona relevante de la cultura vasca, a partir del cual se podrán subrayar los criterios éticos y evangélicos que acompañan a un relato de nuestro pasado violento que merezca ser transmitido a las generaciones futuras.

Finalizaremos esta dinámica común en remoto con una oración final compartida.

Tras un pequeño receso, iniciaremos la **dinámica particular presencial**, cada grupo en su lugar de reunión (local parroquial, templo...) desde donde ha seguido la parte común telemática, para desarrollar el ejercicio de transmisión y contraste de memoria personal y local, consistente en tres momentos:

- Comentar lo aparecido en la sesión general (sobre todo, reacciones de los jóvenes asistentes al testimonio ofrecido)
- Ofrecer las memorias personales o locales (comunicación de los adultos a los jóvenes: se ofrece adjunto un breve esquema metodológico de preparación)
- Hacer un contraste de los criterios éticos y evangélicos ofrecidos en el audiovisual (diálogo conjunto)

En orden a facilitar la participación y el correcto desarrollo del encuentro y dadas las peculiares condiciones en que se va a celebrar, os hacemos las siguientes **consideraciones**:

- La transmisión por medios informáticos de la primera parte del encuentro (la dinámica común telemática) permitirá la participación de **personas a título individual**, desde sus propios dispositivos, pues se publicitarán los enlaces de conexión correspondientes. Difundir esta posibilidad es una manera de lograr una participación mayor en número que en otras ocasiones, pues no demanda desplazamiento ni dedicación superior a una hora el propio sábado por la mañana.
- Sin embargo, queremos insistir en que la prioridad está en la organización, en la propia comunidad, parroquia o Unidad Pastoral de una convocatoria, en un local que reúna las condiciones necesarias, de **personas adultas y jóvenes, constituidas en grupo**, que sigan el desarrollo de la primera parte telemática y después hagan la dinámica particular local, aprovechando que están juntos.
- Si tenéis intención de organizar un grupo, enviad por favor un mensaje a pazyreconciliacion@bizkeliza.org haciéndonoslo saber, adjuntando datos de una persona de contacto. De este modo iniciaremos una tarea de trabajo conjunto preparatorio en orden a hacer posible el mejor desarrollo de la sesión.

Os recordamos que el día siguiente, primer domingo de Cuaresma, como ya quedó establecido en años anteriores, lo celebraremos como **Día de la Paz y de la Reconciliación** en toda la Diócesis. Para ese día se dispondrá de subsidios litúrgicos.

Como ya sabemos, este año se va a desplegar una dinámica diocesana de Cuaresma alrededor de «**Comunidades acogedoras**». Es fácil enmarcar nuestro Bake Topaketa - tradicional encuentro diocesano inaugural de este tiempo litúrgico-, con esa pretensión, pues en él queremos, de manera especial, acoger desde las personas adultas de la comunidad a las personas jóvenes y, correlativamente, solicitar de éstas, a su vez, que acojan, junto con la memoria adulta recibida, la correspondiente responsabilidad generacional en la cuestión de la paz y de la reconciliación.

Desde la Delegación de Caridad y Justicia deseamos y esperamos que la participación en el encuentro del sábado y la celebración dominical sirvan para avivar nuestro espíritu solidario y reconciliador en el comienzo de la Cuaresma. Os **animamos** a participar activamente y **agradecemos** de antemano el trabajo y dedicación de todas las personas que lo harán posible.

A vuestra disposición, recibid un cordial saludo.

Manu Moreno
Delegado de Caridad y Justicia